

# BILBAO ATHLETIC



## Bilbao Athletic.

Caceres aldetik ibillita Trujillo errian aparteko eliza ederra ikusiko dogu Santa María la Mayor deritxona. Eliza onen torre alde batean, sekulako gauza arrigarri bat dago begi guztien aurrean. Zer? Gure Bilbao Athletikaren ikurra, oso ondo egiña, argin berezi baten eskuetatik sortua

Badirudi, 1973 urtean, elizaren torrean berriztasun lanak egiteran, Antonio jaunak, bilbotarra, eta Athletic taldearen zale porrokatuak, bere kabuz iñori ezer esan barik, egokiro zinzeldatu eban gure taldearen ikurra.

Laster asi izan erri osoan marmar garratzak ikur onen eta bere egillearen aurka, “Rana” ezizena jarriarik, eta batzuen aldetik, espetxea eskaturik. Baña, zorionez, Trujillo errira oporretan Bilbotar asko joaten diranez, asarrearen laño baltzak, udako eguzkiaren eta turistaren bidez, laster aizatu ziran. Eta orrez gain, ikur zorioneko ori jende askoren artean “txirenada” dala, baña turista barrien ekargarri eta erriaren ongarri. Bilbotarrak eta Athletic taldeak izen ona dauke Españako erri askotan.

**Uriguen tar Zenon**

*Pasiotarra*



# SAGRADA FAMILIA BARCELONA

## Bermeo, eta Sagrada Familia Barcelona.

Gure artean nork ez dau ezagutzen Eliza eder eta zoragarri ori? Euskaldunak ba ete daukagu zer ikusirik Eliza orren eraiketan? Bai, ona emen. Lenengo ta bein eza gutu daigun Teodoro de Anasagasti jauna, bermeotarra. Euskal Erriko arkitekto ospetxua izan zan gure aberrian eta erbestean.

Berak egiñak dira Madrid irian La Castellana, La Gran Vía eta Fuencarral. Malagan ere oso ospetsuak dira berak egiñiko Correos y Telégrafos. Bera izan zan Madridenten lenengoz ormigoia, erabilli ebana etxegintza ofizialetan.

Teodoro Anasagasti Bermeon jaioa 1880 urtean eta bere bizibidea Busturialde, Erroma, Madrid eta Barcelonan izan zan eta Erroman il 1.938 urtean.

Baña bere jenialtasuna agertu eban Barcelonako arkitektoen arteko Batzar Nagusian. Gaudi ospetsua 1926 urtean zendu zan eta Sagrada Familia umezurtz geratu zan eta bere laguntzailleak zaar-saritan moldaturik. Larrialdi garratz onetan Anasagasti jaunak batzarkideen aurrean erabaki sendo bat artu eban eliza eder orren langintzak guztien artean jarraitzeko. Asmo ori bete eta eraginkorra egiteko lenengo giza-barnea esnatu eta zirikatu bear da. Bere erabakia da elizaren planoari jarraipena emotea. Ortarako Catalan guztien biotzak astindu eta aupatuz, asi zan diru billa erriarentzat ain goragarri izango zan sekulako elizarik ederrena, gogoz jasoten. Elizaren torre barriak eta erriaren laguntza gorantza doaz, zorionez.

Anasagasti jauna ezagutu ebenak bermatzen dabe artea eta arkitekturaren leia bere biotzean josirik eukazala, laguneren artean zintzoa zala, eta bere asmoak ondo baño obeto betetzen ebazala

Ana Maria Ferrin idazlariak, eta Gaudiren artean berezia, bere liburu batean jakinarazten dau Teodoro Anasagastiren lan eraginkorra Gaudi eliza ederraren alde.

Mundu osoak jakin bedi bermeotar batek leia biziaren bultzadaz gaztelu bat egingo dauala airean, eta sekulako basílika bat lurrean

Uriguren tar Zenon  
*Pasiotarra*

